

PRENTSA OHARRA

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDAK URTARRILA ETA MARTXOA BITARTEAN BOST KONTZERTUREKIN OSATUKO DU BERE EMANKIZUNEN ZIKLOA EUSKALDUNA JAUREGIAN

- **2009-2010 denboraldiaren lehen atala Sole Gimenezen emankizun arrakastatsurekin itxi bazen ere, nazioarteko zuzendari eta bakarlari gonbidatuen presentzia izango du taldeak**
- **Banda, Bilboko Club Cocherito bere ehun urteurrena omenduz agurtuko da Auditorio honetan kontzertu batekin.**

Bilbon, 2010eko urtarrilaren 11an. Bilboko Udal Musika Bandak, BilbaoMusika erakunde autonomoaren baitan dagoena, urteko lehen hiruhilabeteko kontzertuen egitaraua iragarri du eta Euskalduna Jauregiko kontzertu zikloa itxiko du. Izan ere, Bandaren udaberri-uda denboraldiko eszenatokia, Areatzako kioskoa izango da, bere ohiko eszenatokia.

Urtarrilaren 17tik martxoaren 28ra bost kontzertu eskainiko ditu Bandak. Hauetan, zuzendari eta bakarlari gonbidatuak izango dira eta azken kontzertua Club Cocherito-ren ehun urteurrenaren omenez eskainiko du. Kontzertu guztiak Auditoriumean izango dira, Euskalduna Jauregiko areto nagusian, domeka eguerdin, bi eurotako salneurrian.

Bilkuren Areto honetan eskainitako kontzertuen lehen atal arrakastatsuren ondoren, Rafael Sanz-Espert maisuak zuzentzen duen Udal Musika Bandak, urtearen lehen hiruhilabeteko egitaraua aurkezten du orain. Bi kontzertu urtarrilean izango dira, beste bi otsailean eta martxoan azkena. Martxoaren 28an, Club Cocherito omenduko duen azken kontzertuan, zezenketen elkarteen dekanoa eta 2010 urtean bere ehun urteurrena betetzen duena, zezenketa munduko doinu ezagunekin konposatutako erreperitorio berezia aukeratu du okasiorako Bandak.

Euskalduna Jauregian Bandak eskainiko duen kontzertuen azken txanpa urtarrilaren 17an hasiko da H. Robert Reynolds iparramerikar zuzendari gonbidatuaren eskutik. Hego Californiako Unibertsitatean Bandako zuzendari Titularra, 26 urtez Michiganeko Unibertsitateko Banden zuzendaria izan da eta bere karreraren, Deutsche Grammophon diskoetxe prestigiotsua bezalako hainbat diskoetxeentzat egin ditu grabaketak. Carnegie Hall, Lincoln Center edo Milango La Scala eszenatokietan eskaini ditu bere emankizunak. Gainera, ospe handia du Bandentzako egiten dituen konposaketengatik eta moldaketengatik.

Urtarrilaren 24an Bandak, Rafael Sanz-Espert Bandako zuzendari titularraren agindupean, Luis González tronpeta jolearen kolaborazioa izango du eskainiko duen kontzertuan. 2004 urtetik, Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko Zentroan, Donostian eta Bartzelonan Liceu Goi Musika Kontserbatorioan, tronpeta irakaslea da González. Bi jarduera hauekin batera kontzertuak ere ematen ditu. 1969an jaio zen Valentzian, orkestra garrantzitsuekin jotzeko gonbidatua izan da,

eta Francisco Fort Zacarés, Enrique Muñoz, Juan José Poveda, Gustavo Díaz, Josep Prohens Juliá, Antonio Sánchez Pedro edo Juan J. Colomer konposatzaileek, hainbat obra konposatu dizkiote. Juan José Colomeren "Viñetas Sinfónicas" estreinatu berri du Madrilgo Auditorio Nacionalean, tronpeta bakarlari eta orkestrarako obra. Kontzertu hau gainera berezia izango da. Honetan, Francisco Zacarés konposatzailearen "*De caosis (The order of chaos)*" obra estreinatuko da, *Tokyo Kosei Wind Orchestra* Japoniako Lehiaketaren bigarren ediziooko sari bat irabazi duena.

Otsailaren 14an ondoren, Rafael Sanz-Espert zuzendariaren agindupean berriro, Julen Ramos piano jolea izango da gonbidatua. Eta hilabete berean, 28an, nazioarteko gonbidatu baten txanda izango da, Darío Sotelo brasildar zuzendariarena, aire eta banda orkestren zuzendaritzan berezitua. Honek, egin dituen Master eta parte hartu duen nazioarteko zenbait lehiaketak direla medio, egungo brasildar musikarien obrak zabaldu ditu han-hemen bere ibilbide profesional gehientsuan zehar eta ekimen honetan, Sinfónica Paulista eta Sopros (Sao Paulokoak biak) orkestran egin duen lana nabarmentzen da, bi disko grabatuak dituenak. Tatuí-ko Kontserbatorioan biolin eta biolako irakaslea da, hiri honetako kamarako Orkestrako Zuzendaria, Sao Paulon kokatua dagoena baina Hegoamerikar lurralde osoan Ciudad de la Música bezala ezagutua dena, zein, Latinoamerikar lurralde osoko kontserbatoriorik nagusia den.

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUEN EGITARUA

(2010eko Urtarrila- Martxoa. Euskalduna Jauregia)

- **Urtarrilak 17.** Zuzendari gonbidatua: H. Robert Reynolds (AEB).

- **Urtarrilak 24.** Zuzendari Titularra: Rafael Sanz-Espert; bakarlari gonbidatua: Luis González (Tronpeta).

"*De caosis (The order of chaos)*", Francisco Zacarés valentziar konposatzailearen obraren estreinaldia.

- **Otsailak 14.** Zuzendari Titularra: Rafael Sanz-Espert; bakarlari gonbidatua: Julen Ramos (Pianoa).

- **Otsailak 28.** Zuzendari gonbidatua: Darío Sotelo (Brazil).

- **Martxoak 28.** Zuzendari Titularra: Rafael Sanz-Espert (Club Cocherito bere ehun urteurrenaren omenezko kontzertua)

OHARRA: Kontzertu guztiak izango dira Euskalduna Jauregiko Areto Nagusian 12:00etan (Salneurria: 2 euro). Sarrerak jadanik eskuragarri daude:



Euskalduna Jauregiko leihatilan.
Telefonoz: 944 310 310.

BBK Kutxazainetan:

Interneten bidez: online, BBKren bidez.

Informazio gehiago:

PRENTSA-BULEGOA: L&V COMUNICACIÓN – Itziar Villamandos

Kale Nagusia, 81 – 3. solairua, 9. saila, 48011 BILBO

Tel. 94 416 08 00 -Faxa: 94 439 30 56

Eskukoa: 657 796 583

villamandos@lvcomunicacion.com